Déficit Moderado o grave con adaptación			
Déficit Total			

• Observaciones: _____

Fecha y firma.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA ESKURATZEKO PROZEDURA

1. ORRIA

HITZAURREA

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen esku lagaten du adinekoentzako ostatu-zerbitzu iraunkorra ematearen ardura, eta Udalen eskumentzat jotzen du, berriz, haren kudeaketa. Era berean, Legeak eskubide unibertsaltzat eta subjektibotzat xedatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio- eta zerbitzu-katalogoa jasotako prestazio eta zerbitzuak eskuratzeara, eta 2016-12-25etik aurrera (sistema hori unibertsal bihurtzeko zehaztutako datatik aurrera) baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiak eska dezakete hori betetza, administrazio- nahiz jurisdikzio-bideak erabiliz.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzu- eta Prestazio-zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzen ditu, eta EAeko herri-administrazioentzako betebeharrauk xedatzen ditu horren harira, 33.2 a) 1.9.2 (1.9.3 eta 1.9.4) artikuluan. Horrenbestez, Ermuko Udalerriko adinekoentzako ostatu-zerbitzu iraunkorra arautza da ordenanza honen xedea.

Gaur egun, Adintsuentzako Etxeetako Gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuak arautzen ditu Bizkaiko lurrealde historikoko adinekoentzako egoitza-zerbitzuak (gaur egun araua aldatzeako aukera aztertzen diharduten arren, horixe da oraindik ere indarrean dagoen erreferentzia). Asmoa: adinekoen benetako premiekin bat, zerbitzu horiek bete behar dituzten gutxieneko material eta funtzionalak finkatu eta doitzea, erabiltzaileek eskubide horiek egoki erabiltzeako aukera izango dutela bermatzeko. Horren harira, I eranskinetik IV. eranskinera bitartean, egoitzetako gizarte-zerbitzu guztietarako baldintza material eta funtzional erkideak ez ezik, sailkapen zehatz baten arabera bete beharreko baldintzak ere finkatzen dira.

1. artikuluaren («Xedea») 2. puntuaren jasotakoaren arabera, adinekoentzako egoitzetako gizarte-zerbitzutzat joko da —izenaz, titulartasunaz eta ezaugarriez harago— diru-truke 60 urtetik gorako pertsonentzako (edo egoera pertsonal edo sozialen ondorioz talde horren pareko egoeran jar daitezkeen pertsonentzako) ostattua, arreta eta mantuera ematen duen establezimendu oro.

Beste alde batetik, 2. artikuluan («Sailkapena»), hiru egoitzetako gizarte-zerbitzu bereizten dira: tutoretzapeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak eta egoitzak, horietako bakoitza bere definizio eta ezaugarri bereziekin. Adinekoentzako egoitza-zerbitzuen premia pertsona bakoitzaren mendekotasun-mailara egokitzea eta, beraz, erantzuna egoera zehatzaren arabera moldatzea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu eta prestazioen katalogoa eskaintzen dituen zerbitzuen tipologiaren asmoa. Hartara, tutoretzapeko apartamentu-zerbitzua eskainiko zaie hein bateko autonomia edo mendekotasun-arriskua izan arren, egoera horretarako etxebizitza egokirik ez duten pertsonei; tutoretzapeko etxebizitza eskainiko zaie I. graduoko autonomia galdua duten pertsonei; eta egoitza, berriz, II. eta III. graduetako mendekotasun-maila duten pertsonei.

41/1998 Dekretuaren I. Eranskinean egoitzetako gizarte-zerbitzuen hiru tipologietarako baldintza orokor erkideak xedatzen dira, eta III. eta IV. eranskinetan, berriz, hurrenez hurren etxebizitza komunitarioak eta tutoretzapeko apartamentuak eskuratzeko baldintza bereziak, materialak eta funtzionalak. Eskakizun eta baldintza horiek nahitaez bete behar dituzte hala

titulartasun publikoko egoitzek nola titulartasun pribatukoek, baldin eta jarduteko baimena eskuratu nahi badute.

Martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan aurreikusitako arau-esparua osatzeko, haren edukiak moldatu egin ziren, tutoretzapeko apartamentuen harira hirugarren adinekoentzako egoitza-zerbitzuei buruzko Dekretua 2. aldiz aldatzeko urriaren 10eko 195/2006 Dekretuaren bidez. Aldaketa horren bidez, eskaintza erabiltzaileen benetako premietara egokitu nahi izan zen, eta zehaztasun handiagoz xedatu hirugarren adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuak eta bestelako formulazio batzuk, horietako batzuk gizarte-zerbitzuetatik kanpo ere daude eta.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua indarrean sartzeko unean, Ermuko udal gizarte-zerbitzuek ez zuten egoitza-zerbitzua abiarazteko baliabide propiorik eta ez zegoen, gainera, halako zerbitzua bideragarri egiteko eskari nahikorik, erantzun horrek behar duen inbertsioa kontuan hartuta.

Horregatik, aldi batez eta, indarreko araudiak agintzen duenaren arabera, intentsitate txiki-ertaineko egoitza-zerbitzua edukitzeko konpromisoari uko egin gabe, adinekoentzako egoitza-zerbitzu hori emateko Bizkaiko Foru Aldundiaren Abeletxe egoitzan plazak hitzartzea erabaki du Ermuko Udalak, gizarte-zerbitzuen zorroari buruzko Dekretua betetzeko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiaren oniritziz (bera baita egoitzaren titularra), eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak eta hora garatzen duen urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak agintzen duten zerbitzuen efizientzia-printzipioari eutsiz.

Ondorioz, indarreko legeriak horretarako agintzen duen baliabiderik ez duen bitartean, udal-eskumeneko egoitza-zerbitzua, ordenantza onartzeko unean udalerrian dagoen foru-egoitzaren bidez ematen dena, Ermuko Udalaren adinekoentzako egoitzako plaza iraunkorren bidez emango da. Hain zuen ere, plaza horiek eskuratzea eta erabiltzeko modua arautu nahi du ordenantza honek.

I. kapitula. ZERBITZUAREN DEFINIZIOA

1. artikula. Zerbitzuaren helburuak

1.1. Helburu orokorra

Intentsitate baxuko baina egonaldi luzeko ostattua edo ostattu iraunkorra eskaintzea hiri-ingurunean, egoiliarrentzako arreta eta laguntza integrala ziurtatuta: etxebizitza komunitarioa eskainiko zaie mendekotasun txikia (I. gradukoa) dutenei, eta tutoretzapeko apartamentua mendekotasun-arriskuan daudenei. Ahalik eta bizi-kalitaterik onena emateko ahalegina egingo da betiere, eta horretarako erabiliko dira, besteak beste, tutoretza, bitartekotza, gizarte-laguntza eta -ikuskaritza, bai eta, hala badagokio, laguntza pertsonala eta etxekoa ere.

1.2. Helburu bereziak



ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA ESKURATZEKO PROZEDURA

2. ORRIA

- Erabiltzaileek komunitate-ingurunean jarrai dezaten ahalbidetzea.
- Erabiltzaileen autonomia pertsonala hobetzea, duten mailari eustea eta modu autonomoan moldatzea ahalbidetzen duten gaitasun eta trebetasunen narriadura prebenitzea.
- Adinekorik bakartuta geldi dadin saihestea.
- Adinekoen segurtasun-sentimendua bultzatzea.
- Mendekotasuna ez areagotzeko prebentzioa, programa egokiak erabiliz.
- Antzemandako gaixotasun eta nahasduren kontrola eta jarraipen terapeutikoa egitea.
- Elikadura osasungarria, orekatua eta askotarikoa eskaintza, bakoitzaren beharrizanak kontuan hartuta.
- Animazio soziokulturaleko programa zuzenduak egitea.
- Egoiliarren, senideen eta egoitzako langileen arteko gizarte-harreman onak sustatzea, eta esku-harzte profesionala egitea gatazkari antzemanez gero.
- Egoiliarren eta kanpoko munduaren arteko harreman pertsonalak bultzatzea, beraien egoera pertsonalak aukera hori ematen badu.
- Egoiliarrek irudi eta sasoi fisiko ona izatea.
- Egoiliarren eta beraren senideen eta inguruko arteko harremanak sustatzea.
- Sormena eta gorputz-adierazpena bultzatzea, sasoiari eusteko eta ariketa fisikoa egiteko programen bidez.
- Erabiltzaileen intimitatea errespetatzea.
- Segurtasun-sentimendua ahalbidetzea.

2. artikulua. Jarduteko printzipioak

- Normalizazio-printzipioa: ahal den heinean eta bizitzaren alor guzietan, egoiliarren bizimodu gainerako herritarrentzat normaltzat jotzen den portaerara eta jokabidera egokituko da.
- Autonomia-printzipioa: egoiliarren eguneroko bizitzan, ahalik eta gehien sustatuko da beraien autonomia pertsonala eta, hartara, osasun psikiko nahiz fisikorako behar den laguntza baino ez du emango zerbitzuak.
- Partaidetza-printzipioa: egoitzako komunitate-bitztan ahalik eta partaidetzarik handiena izateko, egoiliarrek bertako jardueretan eta funtzionamendu orokorrean parte hartza bultzatuko da.
- Integrazio-printzipioa: egoiliarren bizitzaren esparru guzietan (familian, gizartean, politikan nahiz kulturan), ohiko eremuan jarraitzeko ahalegina egingo da.
- Globaltasun-printzipioa: egoiliar guztiei arreta integrala emango zaie; hau da, osasun- eta ongizate-eredu globala bilatuko da, elkarren artean egoki koordinatuta osasunaren, gizartearen, psikologiaren, ingurumenaren, bizikidetzaren eta kulturaren alderdiak, bai eta antzeko beste batzuk ere.
- Profesionalizazio-printzipioa: gizarte-boluntarioen lanari kalterik eragin gabe, haren balio osagarria aitortzen da, eta egoitzako gizarte-zerbitzuaz arduratzeten diren langileek nahiz gainerako langileek euren maila profesionalari dagokion kualifikazio teknikoa eduki beharko dute.
- Arreta pertsonalizatuaren printzipioa: egoiliar bakoitzaren premiei egokitutako arreta pertsonalizatua emango da.

3. artikulua. Hartzaileen ezaugarriak

Honako hauek dira etxebizitza komunitarioen hartzaleak: mendekotasun-maila arina (I. gradukoa) duten 60 urtetik gorako pertsonak eta, era berean, mendekotasun-gradua izanik, 50 urte beteta eduki eta egoera personalen eta sozialen ondorioz 60 urtetik gorakoekin pareka daitezkeenak. Horretarako, ordea, teknikarien aldeko txostena jaso beharko dute. Pertsona guztiek, gainera, 4. artikuluan jasotako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Honako hauek dira tutoretzapeko apartamentuen hartzaleak: mendekotasun-gradu aitorturik izan ez arren, ordenantza honetako baremoan 100 puntu edo gehiago lortu dituzten 60 urtetik gorako pertsonak, beraien beharrizan eta egoera fisiko-psikikorako egokitutako etxebizitza egokia behar dutenak, edota gizartean baztertuta geratzeko arrisku larria dutenak.

Era berean, tutoretzapeko apartamentuen zerbitzua ere emango da, baina Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan jasotako eskubide galdagarria izatearen ezaugarririk gabe.

Nolanahi ere, Ermuko eskumeneko egoitza-baliabideen arreta-maila desberdinak direla eta, Bizkaiko Foru Aldundiak edo gizarte-zerbitzuetako teknikariek esleituko dizkiete baliabideak eskatzaileei, bakoitzaren egoera aintzat hartuta. Hain zuzen, gizarte-diagnostikoan eta ondoriozko Arreta Plan Indibidualizatuan (APlan) behar bezala jasoko da hori.

4. artikulua. Erabiltzaileek etxebizitza komunitarioa eskuratzeko baldintzak

4.1. Hona hemen onuradun izateko baldintzak:

a) Eskaera aurkezteko unean 60 urte beteta edukitzea.

Baldintza hori betetzetik salbuetsita geldituko dira, udal gizarte-zerbitzuetako teknikarien aldeko txostena edukiz gero, berrogeita hamar (50) urte beteta edukita, egoera personalen, sozialen edo osasun-alorrekoen ondorioz hirurogei (60) urteko pertsonekin edo nagusiagoekin pareka daitezkeenak.

b) Ermuko biztanleen udal-erroldan egotea, eskaera egin baino sei hilabete lehenago, gutxienez. Ez zaie baldintza hori eskatuko migratu ondoren itzuli diren pertsonei. Dena dela, Ermuko udalerrian eduki beharko dute azken auzotasun administratiboa.

Migratu eta itzuli diren pertsonek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Spainiako nazionalitatea izatea.
- Spainiako nazionalitatea mantendu ez baina Europar Batasuneko estatu kideren batekoa badute: Estatu Spainolean bost urtez bizi izan direla egiaztatu beharko dute, eta bost urte horietatik gutxienez bi eskaera egin baino aurreko bi urteetan, derrigorrez.
- Etxebizitza komunitarioa edo tutoretzapeko apartamentua eskatu ahal izango dute, halaber, Europar Batasuneko hiritartasunik eduki ez arren, Estatu Spainolean bizi izateko baimena edukirik, legez eta benetan 5 urtean bizi izan direnek, baldin eta bost urte horietatik bi, gutxienez, eskaera egin aurreko bi urteak izan badira.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA ESKURATZEKO PROZEDURA

3. ORRIA

Dena dela, aurreko baldintzak bete arren, Espainiako nazionalitaterik ez duten pertsonei hauxe ezarriko zaie: Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei eta beraien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan araututakoa, jatorrizko estatuarekin lotutako hitzarmenetan jasotakoa eta arau horien aldaketetan xedatutakoa.

c) I. gradu mendekotasun-kalifikazioa eskuratzea **edota ordenantza honetako baremoan 100 puntu edo gehiago lortzea**, mendekotasun-egoera aitortzeko prozeduran Bizkaiko Foru Aldundiaren araudian jasotakoaren arabera egindako balorazioaren ondorioz.

Gainerako baldintzak bete arren, beste probintzia batean I. gradu mendekotasuna kalifikatu diotela dioen foru-agindua edo pareko agiria duten pertsonek etxebizitza komunitarioan edo tutoretzapeko apartamentuan sartzeko eskaera egin ahal izango dute, baldintza batekin: bertan sartzen direnean, mendekotasun-espedientea jatorrizko probintziatik Bizkaira ekartzeko eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiari.

4.2.- Maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat, eskaeraaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak arrisku-egoeran dauden edo mendekotasun arina duten pertsonentzako egoitza-zerbitzuan sartu nahi izango balu, bere ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin batera egin beharko du eskaera. Gainera, 4.1. puntu jasotako baldintza guztiak bete beharko ditu, «a» baldintza izan ezik. Honako baldintza hauek bete beharko ditu, beraz:

- Eskaera aurkezteko unean berrogeita hamar (50) urte beteta edukitzea.
- Adinekoentzako ostatu-zerbitzu iraunkorrean sartzeko eskabidea egiteko unean, eskaera egin aurreko 10 urteetan bizi izatea, gutxienez, ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin.
- Ez edukitzea erakunde ofizial eskudun batek aitortutako mendekotasun-gradu ertaina edo handia (II. eta III. gradu mendekotasuna).

Bikoteko kideetako bat dagoeneko zentroan badago eta beste kideak sartzeko interesa badu, ordura arte eskaera egin barik eduki arren, alta-eskaera egin beharko du; alabaina, ez du inolako lehentasunik izango itxarote-zerrendan dauden gainerako pertsonen aurrean bikotekidea zentroko erabiltzailea izateagatik, eta, ondorioz, 7. artikulan adierazten den onarpen-ordena errespetatu beharko du. Nolanahi ere, eskaera-tramitea onartu onoren, ezkontidearen logela erabiltzeko lehentasuna izango du. Horretarako, zentroak behar bezala antolatuko ditu gelak, hori posible izan dadin.

5. artikulua. Esklusioak

Hauexek dira zerbitzuaren onuradunak izatea galarazten duten egoerak:

- a) Baliabide espezializatuak eskatzen dituen osasun-laguntza edo zaintza-maila altua behar izatea, adinekoentzako ostatu-zerbitzu iraunkorraren irismenetik eta aukeretatik kanpo.
- b) Egoitza-ingurumenak, beste pertsona batzuekiko harremanak edo beste edozein arrazoik eragindako ondorio antiterapeutikoak jasatea.

c) Adinekoentzako egoitza-zentro baten baliabideen bitartez kontrolatu ezin diren jokabide-nahasmendu larriak edo zentroaren funtzionamendua nahiz bertako bizikidetza nahas lezaketen portaerak izatea. Medikuaren edo psikologoaren txosten baten bidez egiaztatuko da egoera hori.

Era berean, ezin izango dute ostatu-zerbitzu iraunkorra erabili gainerako erabiltzaileekin arazoak edo bizikidetza-gatazkak eragin ditzaketen pertsonek. Oinarrizko gizarte-zerbitzuko teknikari-taldeak baloratuko ditu halako jokabideak.

6. artikulua. Hautatzeko irizpideak eta baremoak

Pertsona bakoitzaren gizarte-egoeraren eta mendekotasun-mailaren arabera zehaztuko da onuradunen arteko lehentasuna. Hala, mendekotasun/autonomia-baremoan I. graduau daudenak, bakarrik bizi izateko arazo handiak dituztenak eta ostatu-arazoak dituztenak lehenetsiko dira.

Larrialdi-egoera antzerakoa bada, Ermuko Udaleko erregistroan egoitzan sartzeko eskaera noiz egin zen hartuko da kontuan, antzinatasunik handienekoa lehenetsiko delako. Eskaera bat baino gehiago egun berean erregistratu badira, erregistro-zenbakiai erreparatuko zaio, eskaera unean bertan egin duten bikoteen/ezkontideen kasuan izan ezik; izan ere, horietako bakar batentzako lekua egongo balitz, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako talde teknikoak baloratuko du bietako zeini esleituko zaion.

7. artikulua. Zerbitzuaren itxarote-zerrenda

Eskatzaileen zerrenda da zerbitzua esleitzeko lehentasunak ordenatzeko bidea, betiere sartzeko lehentasunen baremoan eskuratu duten puntuazioa kontuan hartuta. Horiek horrela, ordenantza honen bidez araututako zerbitzu guztiak izango dute eskatzaileen zerrenda, eta, baremo bidez arautzen ez denean, eskabidearen ordena kronologikoak aginduko du.

I. graduoko mendekotasuna baloratu zaien edo mendekotasun-arriskua aitortuta duten pertsonek zerbitzua jasotzeko eskubide subjektiboa dute eta, ondorioz, sartzeko baldintzak betez gero, zerbitzuan sartzeko itxarote-zerrendak ez du iraungo sei hilabete baino gehiago, eskabidea aurkeztu duten egunetik zenbatuta.

Epe hori igarota udal gizarte-zerbitzuek ezin izan badiote zerbitzua eskaini eskubide subjektiboa aitortua duen pertsonari, zerbitzuarri atxikitako prestazio ekonomikoa (ZAPE) jasotzeko prozedura aktibatu beharko da.

Eskera eragin duen arrazoia «gizarte-larrialditzat» jo bada, eskaera jaso eta hogeita hamar egunera aktibatuko da ZAPEa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan zehaztutako mugen eta irismenaren baitan.

Autonomotzat baloratutako pertsonei dagokienez, eskabide guztiei aurre egiteko aurrekontu-zuzkidurariak ez badago, itxarote-zerrenda osatuko da. Horrenbestez, kasu horretan, eskaera jaso den dataren ordena zorrotz errespetatuz zehaztuko da lehentasuna, betiere zerbitzua jasotzeko eskubide subjektiboa duen eskatzailerik ez badago aurretik.

8. artikulua. Zerbitzuko langileak

Ermuan dagoen foru-egoitzako langileek emango dute zerbitzua, beraien lanaldiaren barruan.

9. artikulua. Eskubideak eta betebeharrok



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA ESKURATZEKO PROZEDURA

4. ORRIA

Hauek dira erabiltzaileen eskubideak:

- a) Inolako bazterkeriarik gabe sartzea zentroan eta jasotzea arreta (alegia: sexuari, arrazari, erlijioari, ideologiari edo beste edozein egoera edo baldintza pertsonal edo soziali lotutako bazterkeriarik jasan gabe).
 - b) Errespetuz, zintzotasunez, zuzentasunez eta egoera ulertuz artatuak izatea, banaka eta era pertsonalizatuan.
 - c) Beraren intimitateari eragiten dioten izaera pertsonaleko datuak konfidentzialak izatea.
 - d) Pertsonen arteko harremanak izatea, kanpoko bisitak jasotzeko eskubidea barne.
 - e) Egoiliarra izateagatik eragin diezaioketen edo interesgarriak gerta dakizkiodeen gaien inguruko informazioa jasotzea eta horren inguruko iritzia ematea.
 - f) Intimitatea izatea, zentroaren egiturazko baldintzen arabera, eta bere bizimoduaukeratzeko autonomia ere izatea; zentzu horretan, bereziki zaintzekoa da pertsonaren premien, printzipoen eta sinesmen araberako biziota afektibo-sexuala izateko eskubidea.
 - g) Beharrezko arreta jasotzea: gizarte-, osasun-, farmazia-, hezkuntza- eta kultura-arreta ez ezik, garapen psikiko-fisiko egokia lortzeko behar diren premia guztietarako arreta ere bai.
 - h) Zuzendaritzari zerbitzuen funtzionamenduari eta hobekuntzari lotutako proposamenak edo kexuak jakinaraztea, eta erantzuna jasotzea.
 - i) Berak nahi badu, zerbitzuak edo zentroa lagatzea.
 - j) Erraz ulertzeko moduan jakinaraztea aipatutako eskubide guztiak, eta benetan erabiltzeko bideak eskaintzea.
 - k) Sartzeko kontratua sinatzen duen unean bertan barne-araudiaren kopia jasotzea.
 - i) Bere gelan bere gauzak edukitzea, segurtasunerako kaltegarriak direnak izan ezik.
- Hauek dira erabiltzaileen betebeharrak:
- a) Zerbitzuaren barne-araudian jasotako erabilera-baldintza orokorrean zehaztutako arauak ezagutzea eta betetzea.
 - b) Eskatzen zaion beharrezko eta egiazko informazioa helaraztea, emango zaion arreta (hala teknikoa nola laguntzakoa) egokia izango dela bermatzeko.
 - c) Elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta elkarlanean oinarritutako jokabidea izatea, bizikidetza hobetze aldera.

- d) Zerbitzuko instalazioak errespetatzea.
- e) Prezia ordaintza.
- f) Oinarrizko gizarte-zerbitzuei jakinaraztea bere egoera pertsonalean, bizikidetza-nukleoan, ondarean nahiz ekonomian gerta litekeen edozein aldaketa, baldin eta zerbitzu-prestazioan eragina izan badezake.
- g) Oinarrizko gizarte-zerbitzuek deituz gero, hitzordura joatea.

10. artikulua. Barne-funtzionamendurako arau orokorrak

- a) Egoiliarrak sarrerako kontratua sinatu beharko du, eskubidez jaso ditzakeen zerbitzuak eta plazarengatik ordaindu beharreko prezioa jasoko dituena.
- b) Egoiliarrak izaera pertsonaleko fitxa bete beharko du, filiazioari buruzko datuak ez ezik, larrialdirik gertatuz gero nori deitu behar zaion ere zehaztuta.
- c) Egoiliarrak errespetuz eta begirunez tratatuko ditu zerbitzuko langileak eta gainerako erabiltzaileak; portaera zuzena izango du, eta egoki garbituta eta jantzita ibiliko da.
- d) Adinekoentzako ostatu-zerbitzu iraunkorrik ez du erantzukizunik onartuko egoiliarren ondasun eta gauzei dagokienez. Ondorioz, ezin izango zaio ezer egotzi gauza pertsonalak galdu edo desagerten badira, zerbitzuaren zaintzaean laga dituztenean izan ezik.

11. artikulua. Adinekoentzako ostatu-zerbitzu iraunkorrik emandako zerbitzuak eta berorien funtzionamendu-arauak

11.1. Zerbitzu mediku eta geriatrikoak

Hirugarren adinekoentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren arabera, zentroak osasun-arreta ahalbidetuko die egoiliarrei. Ildo horretan, egoiliarrak berak egindako aukera errespetatuko du zentroak, eta erabiltzaile guztiek behar duten osasun-arreta jasoko dutela bermatuko du, dela baliabide propioak erabiliz, dela kanpokoen bidez. Foru-egoitzako langileak arduratuko dira osasun-arreta hori emateaz, Osakidetzaren bidez edota pertsonak nahi duen zerbitzu mediko pribatuen bidez. Dena dela, zerbitzuaren programazioaren baitan, prebentziorako jarduerak emango zaizkie egoiliarrei.

Zentroan dirauen bitartean, erabiltzaileak derrigorrez onartu beharko ditu zerbitzu mediko eta terapeutikoak, eta tratamenduak errespetatu beharko ditu, behar izanez gero. Medikamenduak osasun publikoaren kargura egongo dira, edota erabiltzailearen kargura, osasun publikoaren onuraduna ez bada.

Medikuaren aginduak behar bezala betetzeko, guztiz debekatuta dago egoiliarren geletan medikuak agindutakoa ez den inolako medikamendurik edo osasun-materialik egotea, zerbitzuak baimendutako kasu berezi-berezietan izan ezik.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA ESKURATZEKO PROZEDURA

5. ORRIA

Zentroan erabiltzaileak behar duen medikamendurik ez badago edo mediku titularrak zehaztutako tratamendu-aldeketei buruzko informaziorik ematen ez badu, ezin izango zaio medikamendurik eman. Halakoetan, erabiltzailea eta haren senideek izango dira egoeraren erantzule bakarrak.

Kanpoko kontsulta medikoak: erabiltzailearen eta senideen ardura izango da ohiko azterketa edo kontsultetara eramatea. Erabiltzaileak edo, dagokionean, senideek jakinarazi behar dute aurretiaz zer kontsulta medikotara joatekoak diren. Zerbitzuko langileei kontsulten emaitzaren berri eman beharko diete, eta osasun-txostenaren kopia ere bai, halakorik balego.

Nolanahi ere, gorabeherarik gertatuz gero, egoitzako osagileek eta Osakidetzako langileek artatuko dute. Egoiliarra larrialdiko zerbitzura eraman behar bada, gaixoa non dagoen jakin bezain laster senideek ospitalera joan beharko dute, gaixoa bertan dagoen bitartean lagunza emateko. Senideek edo beraiek aukeratutako pertsonen arduratu beharko dute ospitaletan dauden egoiliarren arreta pertsonalaz.

11.2 Janari- eta jatetxe-zerbitzua

Zerbitzuak erabiltzaile bakoitzari egokitutako nutrizioa eman behar du, eta, hala badagokio, patologia bakoitzerako elikadura berezia. Langile espezialistek ezarriko dituzte jarraibide dietetiko egokiak. Zerbitzu hori betetzeko, janari eta afariak hornituko dituen etxez etxez catering-formula erabiltzea proposatzen da. Gosariari dagokionez, zerbitzuko langileak ardura daitezke.

11.3. Garbiketa-zerbitzua eta norberaren garbitasuna

Ohea konpontzea ere bai. Zerbitzuko langileak arduratuko dira, erabiltzailearen premien arabera.

11.4. Arropa garbitzeko eta plantxa egiteko zerbitzua

Egoiliarren etxez arropa nahiz erabilera personalekoa sartzen da. Zerbitzuko langileak arduratuko dira horretaz.

11.5. Gaueko arretako eta larrialdiko zerbitzua

Horretaz ere arduratuko dira zerbitzuko langileak.

II. kapitulua. ZERBITZUA ESKURATZEKO PROZEDURARI BURUZ

12. artikulua. Zerbitzua eskuratzea

12.1. Eskaera

Adinekoentzako ostatu-zerbitzu iraunkorra eskuratzeko eskaera egin beharko da, inprimaki normalizatua (I. ERANKSINA) erabiliz, herritarren arretarako udal-zerbitzuan (Abiapuntun).

Interesdunak edo, hala badagokio, legezko ordezkariak sinatuta egon beharko du.



ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA ESKURATZEKO PROZEDURA

6. ORRIA

Eskaera aurkeztu aurretik, kasuaz arduratzen den gizarte-laneko teknikariarekin bildu beharko du. Eskatzaileak aurretiaz halakorik ez badu, gizarte-zerbitzuetako teknikariak pertsona horren gizarte-diagnostikoa eta arreta-plan indibidualizatua egingo ditu, erabaki-proposamena aurkeztu baino lehen.

Erabakia hartu aurretik, prozesuaren edozein unetan, interesdunak nahiz haren legezko ordezkariak eskaera bertan behera lagatzeko aukera izango du, borondate hori agerian jartzen duen edozein bide erabiliz (besteak beste, tramitazioaz arduratzen den gizarte-laneko teknikariak sinatutako diligentziaren bidez, baldin eta eskatzailearekin bildu denean eskaera bertan behera lagatzeko asmoa adierazi badio; edota bide elektronikoak edo telematikoaz erabiliz, Administrazio elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak xedatutakoarekin bat). Horren ondorioz, erabakia hartu eta espaldentea artxibatu egingo da.

12.2. Dokumentazioa

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da eskatzaileari buruz eta, hala badagokio, familia-unitateko gainerako kideei buruz:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia, edo horren pareko beste edozein identifikazio-agiri.
- Familia-liburua, baldin eta familia-unitatean 18 urtetik beherako kideak badaude.
- Mendekotasuna Baloratzeko Unitateak egindako balorazioa, hala badagokio.
- Hala badagokio, organo ofizial eskudunak emandako minusbaliotasun-ziurtagiria.
- Txosten medikoa, IV. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren arabera.
- Familia-unitateko Kideen erroldatze-ziurtagiria.
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak.
- Persona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren azken aitorpenaren fotokopia edo, dagokionean, halakorik egiteko betebeharrik ez duela dioen ogasun-ziurtagiria.
- Pentsioa ematen duen organismoaren pentsio-ziurtagiria, pentsio-mota eta pentsioaren zenbatekoa zehaztuta.
- Aurrezki-libretak, kontu korronteak, bonoak, akzioak, epe finkorako orriak eta abar dituen banku-erakundeen posizio eguneratuen ziurtagiria.
- Azken nominaren edo nominen (nomina aldakorra bada) fotokopia.
- Prestazio ekonomikoengatik jasotako zenbatekoen eta beste diru-sarrera batzuen ziurtagiriak.
- Ezarritako prezioaren hileko ekarprena egiteko erabiliko den kontu korrontea dagoen banku-erakundea eta zenbakia.
- Gastu kengarrien ziurtagiriak (alokairua, hipoteka-kreditua...).
- Eskatzaileak ez badu bere egoera ekonomikoa baloratzerik nahi edo ez badu behar bezala justifikatzen, zerbitzuagatik ezarritako kostu osoa ordaindu beharko du. Nahitaez sinatu beharko du hori agiri batean.
- Udal gizarte-zerbitzuen ustez, eskaeraren inguruko erabakia hartzen lagunduko duen beste edozein dokumentazio.

Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa akastuna bada edo zerbaite falta bazaio, eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio falta den dokumentazioa ekartzeko edo akatsak zuzentzeko. Hori egin ezean eskaera bertan behera geldituko dela jakinaraziko zaio.

Berari buruzko datuak egiaztatu edo biltzeko baimena emango dio eskatzaileak Udalari. Eskatzaileak araudi honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko baldintza eta baliabide ekonomikoak egiaztatzeko begiratuko ditu Udalak erabiltzailearen datuak.

Gezurrezko datuak eman edo datuak ezkutatuz gero, eskaera bertan behera geldituko da, sor litekeen gainerako erantzukizunez gain.

12.3. Baremoa

III. ERANSKINEAN zehazten den baremoan arautzen dira eskatzaileen zerrenda ordenatzeko eta gizarte-diagnostikoaren arabera zerbitzua eskuratzeko lehentasunak ezartzeko irizpideak.

Zerbitzua pertsona batentzat baino gehiagorentzat eskatzen bada, zerbitzua eskuratzeko baremoaren ondorioetarako, arretarik handiena behar duen eskatzailearen egoera baino ez da hartuko aintzat.

12.4. Baldintza ekonomikoak

Adinekoentzako arreta-zerbitzu iraunkorrik koordainketa eskatzen du. Ermuko Udalak urtean behin arautuko du zerbitzuaren alor hori, 21. zerga-ordenantzaren bidez.

12.5. Osasun-fitxa

Eskaerekinko batera, eskatzailea artatu ohi duen medikuntzako profesionalak betetako osasun-fitxa edo -txostena erantsi beharko da. Zehazki, III. ERANSKINEAN agertzen den osasun-fitxan jasotako informazioa azaldu beharko da txosten horretan.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA ESKURATZEKO PROZEDURA

7. ORRIA

I. XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza hau behin-behinekoa da, adinekoentzako ostatu-zerbitzu iraunkorra adinekoentzako Abeletxe foru-egoitzaren bidez ematen den bitartean. Etorkizunean berariaz baliabide berri bat sortuko balitz, araudi berri bat egin beharko litzateke.

II. XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan berariaz araututa ez dauden barne-araudiari lotutako arlo guztiei dagokienez (bizikidetza-araauak, zehapen-araubidea, egoiliarren partaidetza, senideen bisitatarako ordutegia eta abar), **hirugarren adinekoentzako egoitzetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan** xedatutakoak aginduko du, edota, hor ere araututa ez badago, zerbitzua kokatzen den egoitza-zentroaren beraren araudiak.

III. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aldian-aldian, adinekoentzako ostatu-zerbitzu iraunkorraren onuradunen egoera sozioekonomikoa berrikusi egingo da, baldintzak betetzen direla eta diru-sarreretan edota ondasunetan aldaketarik egon ote den egiazatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean sartu den egunean adinekoentzako ostatu-zerbitzu iraunkorra eskuratzeko oraindik erabaki gabe dauden eskaera guztietai goitik behera ezarri beharreko araudiia izango da.

Araudi hau indarrean sartu aurretik zerbitzuaren onuradunak ziren pertsonen espedienteak berrikusi egingo dira, ordenantza honetan araututakoari egokitzeo.

AZKEN XEDAPENAK

Ordenantza honetan berariaz araututa ez dauden alderdiei dagokienez (hala onuradunen harira nola zerbitzua eskuratzeko baldintzen harira), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 2015/185 Dekretua ezarriko da.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, zerbitzua eskuratzeko eskaeretan eta eskaerak tramitatzeko erantsi beharreko dokumentazioan agertzen diren datuak Ermuko Udalaren fitxategietan eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte.eus fitxategian sartuko dira. Asmoa hauxe da: gizarte-zerbitzuek artatutako pertsonen datuak erregistratzea, erabiltzaileentzat beharrezkoak diren eskaerak eta tromiteak kudeatzea, eta eskaera egin duten pertsonei lagunza ematea, hurrenez hurren. Eskatutako datuak nahitaezkoak dira asmo hori betetzeko eta, beraz, daturik eskuratu ezean ezin izango da zerbitzurik eskaini.

Ermuko Udal eta Eusko Jaurlaritza dira fitxategien arduradunak eta, hartara, emandako datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera bermatuko dute. Horretarako, idatzi bat bidali beharko da Abiapuntu udal-bulegora. Era berean, datuen konfidentzialtasuna errespetatzeko eta fitxategiaren helburuarekin bat erabiltzeko konpromisoa hartzen du Ermuko Udalak. Dena dela, gerta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko

eta lurrarde historikoko beste erakunde publiko batzuei ematea, datuak jasotzeko asmoa burutzeko nahiz fitxategiarengan arduradunaren legezko betebeharra betetzeko.

Eskatzaileek euren ardurapean aitortzen dute eskaeran emandako datuak egiazkoak direla. Ildo beretik, Udalari baimena ematen diote emandako datuen egiazkotasuna ziurtatzeko asmoz, titulartasun publikoko fitxategietan konsultak egiteko eta datuak aipaturiko fitxategietan gordetzeko, aurretiaz zehaztutako baldintzen pean. Azkenik, eskatzaileek euren egoeran aurrerantzean gerta daitezkeen aldaketa guztien berri eman beharko diote Udalari.

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunera sartuko da indarrean.

Horretaz gain, Udalaren webgunean ere argitaratuko da. Ermuan, 2018ko XXXXren XXXX(e)an.

I. ERANSKINA. ESKAERA-FITXA

ESKAERA
ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA

DATU PERTSONALAK:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA ESKURATZEKO PROZEDURA

8. ORRIA

LEHENENGO ABIZENA		BIGARREN ABIZENA		IZENA
JAIOTEGUNA	EGOERA	TELEFONO	GIZARTE-SEGURANTZAKO ZENBAKIA	NANa
HELBIDEA		HERRIA		BARRUTIA
				PROBINTZIA

BIZIKIDETZA-EGOERA

ESKATZAILEAREKIN BIZI DIREN PERTSONAK

IZEN-ABIZENAK	NANa	AHAIDETASUNA	ADINA	MINUSBALIOTASUNA

ERREFERENTZIAKO PERTSONA

HARREMAN-MOTA

TELEFONO

Besterik (zehaztu)

Nire erantzukizunpean adierazten dut emandako datuak egiazkoak direla eta jakinaren gainean nagoela datu horietan sortutako edozein aldaketa Zerbitzuari jakinarazteko betebeharraz.

Ermuan, 20XX(e)ko

.....aren

.....(e)(a)n

Sinadura:

II. ERANSKINA ZERBITZUA ESKURATZEKO BAREMOA

1.1.1.1. PPUNTUAZIOA

A. AUTONOMIA PERTSONAL / AUTONOMÍA PERSONAL

→	Bai Sí	0 puntu	Zailtasunez (zailtasun larriak) Con dificultad (serias dificultades)	15 puntu	Ez No	30 puntu
				1.1.1.2 ES KA TZA ILE A SOLICITANTE	1.1.1.3 BIZI KID EA CONVIVIENTE	
A.1.	1.1.1.3.1.1 Ohetik edo besaulkitik laguntzarik gabe altxatzen da	Levantarse solo/a de la cama o de un sillón		0	0	
A.2.	1.1.1.3.1.2 Bere burua laguntzarik gabe garbitzen eta janzten du	Realizar su aseo normal y vestirse ¹		0	0	
A.3.	1.1.1.3.1.3 Etxean laguntzarik gabe ibiltzen da edo ondo moldatzten da gurpil-aulkian	1.1.1.3.1.3 Andar solo/a en casa o desplazarse convenientemente en silla de ruedas		0	0	
A.4.	1.1.1.3.1.4 Etxetik hurbil laguntzarik gabe ateratzen da ¹	1.1.1.3.1.4 Salir solo/a de su vivienda al exterior inmediato ¹		0	0	
A.5.	1.1.1.3.1.5 Auzora edo herrira laguntzarik gabe ateratzen da	1.1.1.3.1.5 Salir solo/a por el barrio o pueblo		0	0	

¹Kalera ateratzen da, baina ez du gurutzatzen / Sale a la calle, sin atravesarla

1.1.1.3.1.5.1.1 A

1.1.1.3.1.5.1

TOTAL

B. ETXEKO LAGUNTZA / ATENCIÓN DOMÉSTICA	
	Bete lauki hau ezin baditu inork etxeko lan hauek egin
Rellenar este apartado en el caso de que no haya nadie que se pueda encargar de hacer dichas tareas	



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA ESKURATZEKO PROZEDURA

9. ORRIA

→	Bai Sí	0 puntu	Zailtasunez (zailtasun larriak) Con dificultad (serias dificultades)	15 puntu	Ez No	30 puntu
B.1.	1.1.1.3.1.6 Erosketak egiten ditu 1.1.1.4 Realiza las compras		1.1.1.5 0			
B.2.	1.1.1.5.1.1 Janaria prestatzen du 1.1.1.6 Prepara las comidas		1.1.1.7 0			
B.3.	1.1.1.7.1.1 Etxea jagon eta arropaz arduratzan da 1.1.1.8 Atiende la casa y cuida la ropa		1.1.1.9 0			

1.1.1.9.1.1.1 E

TOTAL

G	U	Z
T	I	R
A		

C. BIZIKIDETZA / CONVIVENCIA

C.1.	1.1.1.9.1.2 Bak arrik bizi da Persona sola	<input type="checkbox"/> 30
C.2.	1.1.1.9.1.3 F a m ili a	<input type="checkbox"/> (0) Etxean / En casa <input type="checkbox"/> (10) Hurbil / Cerca <input type="checkbox"/> (20) Urrun ³ , ez dauka, interesik ez dauka / Alejada ³ , inexistente, indiferente
C.3.	1.1.1.9.1.4 A u z o k i d e a k Vecinos-as	<input type="checkbox"/> (0) Laguntzeko prest / Disponibles <input type="checkbox"/> (5) Gutxi laguntzeko prest / Poco disponibles <input type="checkbox"/> (10) Ez dauka, harremanik ez / Inexistentes, indiferentes

³Urrun: kontuan hartu familiak egiten dituen bisiten iraupena eta joan-etorrien maiztasuna, ez soilik distantzia.

Alejada: tener en cuenta el tiempo y la frecuencia de los desplazamientos de la familia más que la distancia propiamente dicha.

1.1.1.9.1.4.1.1.1 G

U	Z	T	I	R	A
---	---	---	---	---	---

TOTAL

D. INGURUA / ENTORNO

D.1.	Habitata Hábitat	<input type="checkbox"/> (0) Herri-gunea edo hiria / Rural agrupado o ciudad <input type="checkbox"/> (5) Herri-gunetik kanpo / Rural disperso
D.2.	1.1.1.9.1.4.1.1.1 Etxebizitzako sarbidea 1.1.1.9.1.4.1.1.2 Acceso vivienda	<input type="checkbox"/> (0) Beheko pisua, igogailua / Planta baja, ascensor <input type="checkbox"/> (5) Lehen pisua edo sotoa / Primer piso o sótano <input type="checkbox"/> (10) Goiko pisuak / Plantas superiores
D.3.	Dendak Comercios	<input type="checkbox"/> (0) Hurbil / Cerca <input type="checkbox"/> (5) Urrun, heltzeko zaitasunak / Lejos, difícil acceso <input type="checkbox"/> (10) Oso urrun edo heltzeko zaitasun handiak / Muy alejados o muy difícil acceso

1.1.1.9.1.4.2.1 G

U	Z	T	I	R	A
---	---	---	---	---	---

TOTAL

E. ETXEBIZITZA / VIVIENDA

E.1	Oinarrizko instalazioak: (argia, ur beroa, berogailu-sistema) Instalaciones básicas: (Luz, Agua caliente, sistema calefacción)	<input type="checkbox"/> Bai / Sí (0)	<input type="checkbox"/> Ez / No (5)
-----	---	---------------------------------------	--------------------------------------



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRA ESKURATZEKO PROZEDURA

10. ORRIA

E.2	Oinarrizko ekipamendua (garbigailua, hozkailua, telefonoa, dutxa, sukaldea) Equipamiento básico (lavadora, nevera, teléfono, ducha, cocina)	<input type="checkbox"/> Bai / Sí (0)	<input type="checkbox"/> Ez / No (5)
-----	--	--	---

1.1.1.9.1.4.3.1 G

U
Z
T
I
R
A

TOTAL

F. AUTOZAINTEA / AUTOCUIDADO	ESKATZAILEA SOLICITANTE	BIZIKIDEA CONVIVIENTE
<u>Eguneroko lanak zailagoak edo ezinezkoak egiten dituzten orioimen-arazo handiak</u> <u>Existencia de trastornos importantes de la memoria que hagan difíciles o imposibles las tareas de la vida cotidiana</u>	<input type="checkbox"/> Bai / Sí (30) <input type="checkbox"/> Ez / No (0)	<input type="checkbox"/> Bai / Sí (30) <input type="checkbox"/> Ez / No (0)

1.1.1.9.1.4.4.1 G

U
Z
T
I
R
A

TOTAL

(A+B+C+D+E+F) GUZTIRA / TOTAL	
-------------------------------	--

III. ERANSKINA.

ADINEKOENTZAKO OSTATU-ZERBITZU IRAUNKORRAREN OSASUN-FITXA

- Txostena egin duen osagilea: _____. Elkargoa: _____. Elkargokide zenbakia: _____.
- Etbez etxeko laguntza-zerbitzuaren eskatzailearen izen-abizenak: _____

. NAN: _____ .

• Osasun-arazorik handienak

- | | |
|----------|----------|
| A) _____ | E) _____ |
| B) _____ | F) _____ |
| C) _____ | G) _____ |
| D) _____ | H) _____ |

• Ohiko medikazioa

- | | |
|----------|----------|
| A) _____ | E) _____ |
| B) _____ | F) _____ |
| C) _____ | G) _____ |
| D) _____ | H) _____ |

• Noraezean ibiltzen da:

• Ohiko medikazioa

- Bakarrik
 Bakarrik, lagunza teknikoarekin: Makila Taka-taka Gorpildun aulkia
 Beste pertsona baten laguntza
 Ohean

• Gaitasun kognitiboa Normala Narriadura kognitibo arina edo ertaina Narriadura kognitibo larria edo oso larria

• Zentzumenak:

	IKUSMENA	ENTZUMENA	HIZKUNTZA
Normala edo defizit arina			
Defizit ertaina edo larria, baina egokituta			
Erabateko defizita			

- Oharrak: _____

Data eta sinadura